



Astekaria

BAKALAOZALEEN SARE PE LAJIKOA



Bakalaozaleen sare pelajikoa

741... 111141111



*Ez laga azken momenturako
Gabonetako zure opariak.
Zatoz lehenbaitlehen!*

w4J **MIMOX**

San Frantzisko, 19 - Tel.: 74 42 13 - ELGOIBAR

Hyundai Berria

ACCENTATU ZAITEZ

Hiru, lau eta bost ateko bertsioak.

1.445.000 ptatik*.

Gainera Hyundaik 3 urteko garantia

eta 24 orduko asistentzia eskaintzen dizkizu.

Accentatu zaituzte.

Zatoz zure kontsesionariara.



BERTSIOEN ARABERAKO EKIPAMENDUAK: Airbag, alboelako babes egilura, aire egokilua, direkzio lagundua, atzeranzko ispilu elektrikoa, maletgia eta depositoa barrutik zabaltzeku aukera, antena elektrikoa, eserleku eta gerriko erregulagarriak, ixte zentralizatua, leiho igogailu elektrikoak, atzeko burupausagailuak, kratikaseta estereoa.

1300 eta 15000 cc hirlarteko **MOTORIZAZIOAK**, 82 eta 90 z.ko potentziareki n.

Injekzio puntuanizdun 12 balbulatako motorrak.

Q14 HYUTIDRI

BANATZAILE OFIZIALAK:

ELGOIBAR: MENDARO AUTOAK, S.A. K/ OIaso, 25. 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa). Tel 74 32 00.

MENDARO: MENDARO AUTOAK, S.A. Errep. Nazionala 634, Km. 52. 20850 MENDARO (Gipuzkoa). Tel 75 50 72.

DONOSTIA: MENDARO AUTOAK, S.A. Zurriola Etorbidea, 16 - Behea. 20002 DONOSTIA (Gipuzkoa). Tel. 28 33 33.

* PenLotsura eta Balearretarako otosatutako prezioak.
BEZa. garraioa eta matrikularb zertralr barne.


100.000 km arlekna.
1PlzZak eta eskulanai

3 Urteko
Garantia

HYU111:11:11



kutxa funcloxioa
tundaciOn frartigt



Top Gaztea

Egunsenti disdiratsua, eguzki printza urreztatuek alaituriko gosari gogoangarria, opil eginberriak eta kafesne erdigaingabetua maitearen ondoan. Ikuilura jeitsi eta zaldi bana hartuta jo dugu hondartzara eta zalaparta armoniotsu bezain jostarian elkar zipriztindu. Gustura ari ginen keinu eta irrifarreak gurutzatuz baina hamar minutu pasa direnerako ezin genion ipurdiko minari eutsi, zaldiak ikuilura bueltatu ditugularik.

Surfeko tablak hartzea erabaki eta itsasora abiatu gara; pare bat ordu egingo genituen han, baina beti berdina gertatzen zaigu; ez da guretzat bezalako olaturik izaten. Etxera bueltatu behar izan dugu gaurkoagatik, nahi adina gozatu gabe baina traje berria estreinatzeak ematen duen pozaz.

Bazkalondoan tenis partidu ikaragarriak ikusi ditugu; lastima! Agassyk ezin izan du irabazi baina gaur Iarunbata da eta gaua oraindik hasi berria zen. Eguzkil ezkututzen

ari zen horretan, olatuak hausten dituen arroka erraldoi batera igo eta harro-harro desafio eginez bi ukabilak zerura altzatu ditugu eta oiuhu egin; GOAZEN!!! Gaur gure eguna dun! Marka guztiak hautsiko dizkinagu, joan den astean baino zazpi farre algara gehiago baietz! Farre algarak adina pastila jokatuko dizkinat ausartzen bahaiz!


Bai, egia da, asteburu hau a tope pasako dugu. Top-Model horiek bezala jantzita dantzatuko ditugu Top-Gazteako abesti irabazleak, askatasun kantu eder eta amerikarren ereserkia. Ez dugu poto egin nahi, ez dugu puta izan nahi, ez da hori gure patua.

Aparra bezala igoko gara jende artean, frantziar txanpainez dugu tope egingo; zorionarekin topo.

Auto berrian sartu eta irratia piztu dut topera. Top-Gaztea. Bidaia guztian lelo bera errepikatu dit. To! Gaztea.

Asier Etxaniz

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





61111111

• Ba al dauka Udalak duela 20 urte egin zen San Rokeko zubia berritzeko-zabaltzeko asmorik?

Hiri_gintzako teknikariarekin e_gon gara eta ez da_goela inolako asmorik esan di_gu. San Roke atzoko trafiko arazoa Sigmako rotondatik 1MHko gurutzebidera e_gin nahi den bide berri batekin konpondu nahi da. Baina hau proiektu bat baino ez da.

5^h

KEXAK

• Irakurle batek deitu di_gu Herri In-atiak antolaturiko "Herriz Herri" irratsaioan Udalaren izenean e_gindako publizitate _guztia erdara hutsean izan zela salatzeke. Euskararen Ordenantzak prestatzea eta onartzea ondo omen da_go baina _gero horrelakoak e_gitekotan ezer _gutxl aurreratzen dugula esan di_gu.

• Beste herritar batek Mintxetara karneta egitera joan eta hango bule_goko neskarekin _gaztereleraz mintzatu behar izana salatu nahi du.



TXALOA

• Gazte batek deitu di_gu 6Nemen9 musika taldea eta Iñaki Odriozola txalotzeko. Lortu dituzten sariak henetan onak direla iruditzen zaio eta aurrerantzean bide beretik segitzera animatu nahi ditu.

ESKUTITZAK

Eskerrak eman ez

Eskutitz honen bidez "La Pastoral de la Salud" edo "Osasunaren pastoral" elkarteak eskerrak eman nahi dizkie pasa den azaroaren 13an Deba bailara eta inguruetako gaiso eta ezindu fisikoen topaketa burutzeko beren laguntza eman zuten _guztiei. 125 lagun bildu zituen bazkarian ezinbestekoa izan zen honako elkarte hauek eskainitako laguntza: Karakate Elkartea, Zubi Ondo Elkartea, Gure-Bide Elkartea, Estarta Elkartea, Galiza Kultur Etxea, Gloria Mugerza Loradenda, Altzolako Urak, Aitzbizkar ardoak eta Eroski. Eskerrak baita ere Zaharren Bilkotokiari bazkaria e_giteko lokala uzteagatik.

Mila esker beraz, _guztiei horren e_gun alaia eta polita i_ga-roitzea posible egiteagatik.

Osasunaren Pastoral

Andonegitarren etxeko pintaden egileei:

Eskutiz honen bidez herriko zenbait pertsonen jokabidea salatu nahi du_gu. Oste_gun _goizean Andonegitarren etxeko aurreko fatxada. Maala aldeko errekarara ematen duena, pintadaz josita a_gertu zen. Ez gaude adierazpen askatasunaren aurka, ez eta gutxia_gorik ere. Nork bere iritziak adieraztearen aldekoak gara, baina horretarako _gure etxeko fatxada baino toki eta modu (pankartak) aproposagoak daudela uste du_gu.


Lerro hauen hidez pintaden egileei _gure desadostasuna eta haserrea helarazi nahi die_gu eta bide hatez, hurrengo batean inoren etxean pintatzen hasi aurretik, zuen etxea modu horretan "ilustratzea" gustatuko litzaizukeen zuen buruoi planteiatzea eskatuko _genizueke. Zeresanik badu_gula uste dugunez, hurren_go batean _gure iritzia aintzakotzat hartzea eskatzen dizuegu.

Andonegitarrak

OHARRA:

BARRENeko irakurle zareten guztioi zera jakinarazi nahi dizuegu: datorren astean hiru jaiegun daudenez, ez da **BARRE**Nik kaleratuko. Berrito zuen buzoietan izango gaituzue ohi bezala, hilaren 16an, ostirala. Ordura arte, ondo izan!

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





ste honetako erre tratua Mari Angeles Alkortak Iagatakoa da. Ikus dezakezuen bezala San Rokerako hide zaharra (Karakoletik hasi eta fundizioaren atzetik

4.000 pasata, gaurregun Institutuaren aurrean dagoen bidean zehar zihoana) inauguratu zuten egunekoa da.

Jose Mari Galdosek esan digunez 1955-56. urtean izan zen inaugurazioa eta hertan Donostiatik etorritako

"gizon haundixen" artean honoko elgoibartar hauek ikus ditzakegu:

Baserritar jantzita dagoen emakumezkoa Kurutze Baserriko Kruzita. Bere ondoan Jose Rezola alkatea (t) eta apaiza, Don Julian Eguren (t) parrokoa. Maze-roak, Jose Mari Ruiz Poveda "Zapa" (eskuman) eta Sabino Ondarre (ezkerrean) (t). Azkenik, jende artean dauden zinegotziak: Roman Ezenarro (t), Pedro Azpiazu, Anjel Ajubita, Iñaki Arrieta, Santi Ansola, Luz Arkarazo eta Jose Arozena.

PUBLIZITATE LANEAN JARDUTEKO KOMERTZIALA BEHAR DA

BEHARREZKOA: - Euzkaraz ondo jakitea, idatziz eta ahoz.
- Harremanetarako erraztasuna.

BALORATZEKOAK: - Maketazio eta diseinu arloko jakituria
- Herri-aldizkariak ezagutzea
- Komertzial lanetan izandako esperientzia
- Argazkigintza arloko jakituria

ARGIBIDE GEHIAGO EDO CURRICULUMAK BIDALTZEKO:
BARREN. Nafarroa Plaza, 2. Elgoibar. Tel.: 74 41 12
BERRIGARA. Errotalde jauregia. Bergara. Tel.: 76 03 97

Curriculumak aurkezteko epea: Abenduaren 13a



San Roke 6 behea tel. 74 34 91

**ZIKLDITZ.
ITU RGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

Larunbat 11/01 A U 104, MAAmbiBoi

Larunbatetako inartait bi erallusbide ondo ezberdin dauzka purrean. Nofflarren, bata herritarren mohidd, eta bestea, inguruko berrietatik eta urrutiotin etorrita ere, Suass-era loaten direnana. Sasoi batean "martxa" edo "mohida" bakarra zepen. Tahernah ziren laun eta iabe: Guass-a azken orduho tokia zen, etxera erretiratu baino lehenapko txokoa. Urte asho itxita eon ondoren, modaho "bacalao" delako tekno musikaren iflplA10 mobidarehin berpiztu zen Guass-a. Herritar asho haize berriei uho epinez, here horretan jarraitzen dute larunbat Qauetan, tabernaz taberna, eta Guass-a azken orduko aukera moduan. Hethi abestieo ortlez, dantzarako musika tehnoaren erritmora dantzaten da orain Guass-ean. "Ilamheroak", beraiek beren buruari esaten dioten hezala, Guasseko "erreQe" bihurtu dira.



arunbat gaua. Parrandarako ordua. Guass-ak kanpoan dauzkan . . . argiak piztuta daude. Larunbat gauak Guass-ean nolakoak diren jakin nahian bertara joan eta begi propioz ikusi genuen hango mugimendua eta arduradun eta langileekin hitz egin genuen. Hona hemen larunbat gau bateko kronika:

00/31 Guass-ean lan egiten duten guztiak bada toz, kamareroak, zaindarrak, takitakoak, gog6-ak, dise-jockey edo pintxadiskoa, arduradunak... guztira 22 pertsona. Elkar agurtu ondoren, bakoitzak bere eginkizunei ekiten die. Kamarerak, neskak gehienak, limoiak moztzen eta

edariak prestatzen hasten dira, Alion eta Jesus musika jartzen, Josetxo, batera eta bestera geratu gabe dena antolatzen...

01/00. Takila irekitzen da. 1000 pta balio du sarre-rak, prezio horren barruan bi kontsumizio sartzen dira. Lehendabiziko "mamberoak" atletik sartzen hasten dira. Inguruko herrietatik etorritakoak daude, Ermutik, Eibartik, Debatik, Zumaiaetik, eta urrutiotatik ere bai, Bilbotik, Mungiatik, Iruñeatik eta Euskal Herri kanpotik, Santander aldetik, Burgo-setik... Gazteak dira, 18 urtetik 25era bitartekoak eta hortik gorakoak ere bai, baina batazbesteko adina 20 urte direla esan daiteke.

Beltza, zuria, gorria eta zilar kolorea dituzte itxuraz gogokoen. Mutilek praka bakeroak, dantzarako zapatila erosoak, kamiseta estu eta elastikoa, arraiaduna edo lisoa, manga motzduna edo luzeduna, batzuk belarritakoa eta beisboleko txapelarekin, beste batzuek gabe, denetarik ikusten da. Neskek ere "look" zaindua dute, gona edo soineko motz eta estua daramate argalenean, modari leial jarraitzen dioten pertsonak dira "mamberoak".

02/vve Jesus pintxadisko lanetan ari da. Tekno musika jartzen ari da, dantzarako musika. "Musika honi bakalao deitu izan zaio, jendeak jarri zion

izen hori haina guk ez diogu horrela deitzen. Tekno musika da hau, teknoaren harruan estilo jakin hat. Henten ez dago talderik, disjockey-ek eta produktoreek egiten dituzte diskoak eta gaur "a tope" dagoen disko hat, bihar-etzi agian ez da inongo diskotekatan entzungo. Musika astero aldatzen da".

Disejockey-aren papera funtsezkoa da, honek jartzen duen musikaren arahera dago lokalaren arrakasta eta hori pistan dantzan ari den jende kopuruan ikusten da. Izan ere, hilean behin edo, jaiak antolatzen dira Guass-ean eta Estatuko disejockey ezagunenak ekartzen dituzte.

03,30: Momentu honetan Guass-eko pista betea dago. Batera eta bestera dabil Josetxo. Ondarritarra da eta lokalaren zuzendaritza darama Jesusekin batera. "Dantzara etortzen da hona jendea, izugarri gogoko dute dantza egitea, eta henetan forman egon hehar da hain-

h e s t e
o r d u z
geratu gahe
dantzan ihiltze-
ko".

04,00^{si} Guass-a "a tope" dago, jendez gainezka. Kanpotarrak ezezika. Herritarrak ere hadaude. Badira gustuko dutenak, heste batzuk inertzia etortzen dira, azken orduko taherna izaten jarraituko balu bezala. Argi dagoena zera da: Guass-ean denentzako tokia dagoela. Josetxok Guass-a zer den azaltzen digu: "Guass-a diskoteka hat da orain. Guk lehentasuna ematen diogu diskoteka kontzeptuari, Elgoibarren egotea higarren mailakoa da. Guass-a Elgoiharren dago haina ez da elgoihartarren diskoteka soilik. Tahernak itxitakoan hona etortzen zen jendea, ordaindu gahe sartzen ziren, taherna hat gehiago balitz moduan. Orain diskoteka hat da hau, guztiontzako diskoteka, eta hala funtzionatzen du. Ostiraletan agian herriko jende gutxiago ibiltzen da

haina larunhat gauean denetarik dago."

04,30 Barra aldean lan ugari dute. Reyes eta Yoli kamarerak elgoibartarrak dira. Zenhat kamarera zaudete? "Bederatzi hat, bi mutil eta gainontzekoak neskak". Zer edaten du jendeak? "Denetarik, konbinatuak batez ere, garga-doa ere hai, hadakizu, merkeena da".

05/00^o Pistaren aldamenetan gog-ak daude dantzan. Bi neska dira,

gazteak.

Hauetako hat Ainhoa da. "Nik gatt guztian zehar egiten dut dantzan. Noizean behin geratu egiten gara, zerbait edan eta errekuiperatzeko. Nahiko gogorra da, nekaturia, haina dantza egiten duen neska gutxi dagoenez, komeni da guk egitea".

06/00. Takda itxi berri dute. Oraindik ere batzuk sartzen ari dira eta heste hatzuk irteten. Gutxienak dira alde egiten dutenak.

07,00^{fi} Isteko ordua. Azken abestiak jartzen dira. Musika ixiltzen da. Argiak pizten dira eta poliki poliki jendeak kalerako hidea hartzen du. Alperrenek beranduago arte ez dute alde egiten. Kanpoan makina hat gazte daude, autoetan sartzen dira etxerako bidean. Juergazaleenek, beste leku hatean jarraituko dute parranda. Ez du inporta egunez edo gauez izan, larunhat, ostiral edo igande, "festak" beste edonon jarraituko du.



Fotero

OKINDEGIA
OPIILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35



XABIER

t#cf? ILEAPAINDEGIA

50.4ta

er,ata etet otedua,

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

GARAY

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92



KAFETEGIA
74 42 65

-\INTERIORES

- SUKALDE ETA BAINUAK
- PROIEKTU ETA ERREFORMAK
- DEKORAZIOA
- ERREGALUAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosurio 15 Behea.

Dantzarako kalentu

Oizakiak azalerazi dituen jokabide sozialen artetik, erlijioak, naturaz gaindiko nutoclura geraturatu izan dtt gizakia dan-tza bezalako teknika edo metoduei esker. Mugitzean, trantze egoeran, jainkoen eta izpirituenganako hurbilketa esperimentatzen zuen gizakiak. Honen erakusbide gisa geratu zaizkigu zenbait dantza, western-etan hainbatetan aszeri izan den euriaren dantza esaterako.

Aspaldiko zibilizazioetan artea kontsideratzen zuten dantza. Historiak edo hitz idatziak existitzen direnetik dantzak ere existitu izan clu, gizakiarekin batera bizi izan da, arlo erlijiosoan zein artistikoan. XX. mendera historian jauzi eginez, nork ez du sekula Jazzaren garaiko edota fox-trop deri-tzonaren, eharleston-aren edota heste estilo hatzuen erritmora gazteak dan-tza egiten agertzen diren pelikularik ikusi? XX. mendean zehar makina hat estilo eta erritmo sortu dira, haina nire ustez 50. hamarkada funtsezkoa izan da. Ordura arte bikotean dantza egiten zuten gizon-emakumea, hakoitza bere kabuz hasiko dira dantza egiten. Solteko dantza sortuko da. Horrela 60. hamarkadara heltzen gara. Garapenak bultzatutako turismoarekin lehen diskoteka agertzen da Estatuan, Sitges-ko "Paehr diskoteka hain zuzen. Orduan "boite" izenaz ziren ezagunak diskotekak. Hemen gaurregungo diskotekatan garrantzia handia duen elementu hat agertzen zaigu: Disejokey-a (DJ), hau da, diskoak jartzen dituen.

Musikoak eta DJk alde batera lagata, diskotekak "adikto" asko sortarazi dituztela esan daiteke. Era guztietako jendea joaten da, estiloetan ere denetarik dago (house, funk, teehno, trance, makina). Hizkuntzak baino hedatuagoak daude, unihertsalak dira.

Zergatik ote orduan, batzuek ez direla diskoteketara hurbildu ere egiten. Eta zergatik dago gorroto dituenik ere?

Lehenik eta hehin esan, Euskadin betidanik izan direla diskotekak. Lehenak 70. hamarkadakoak dira, 80an

behera egiten dute, baina arra-tsaldeetan funtzionatzen jarraitzen dute, inguruko herrietako gazteriaren topagune direlarik.

Gaurregungo gorakadaren arrazoietariko hat, dantzarako musikaren inguruan inculustria indartsua sortu dela da. Kostu merkeko kontsumo gaia da, gainera 70. hamarkadako guztia hueltan etorri da herriro (Zenhat eta zenhat neska kanpanadun galtzekin!). Diskoteketan urrezko garaia bizi dugu. Honi telebisten, aldizkari espezializatuen eta irrati formulen bombardaketa gehituz. gero eta gazte gehiago dira musika mota hau gogoko dutenak eta diskoteketara astebukaera guztietan dan-tzaren festara joaten direnak. Honek ezustean harrapatu ditu elgoihartarrak. Guass-azken taberna izan da orain arte, gairontzeko taberne haino ordutegi zabalagoa izan baitu. Dena den ez da txarra musika kalitateagatik eta dantzaren festagatik Euskadiko mugetatik at ezaguna den diskoteka hat Elgoibarren edukitzea (askok sinistu ez arren). Txarra goa litzateke herritarrak azken tragoa hartzera etorri arte Guass-eko langileak gora begira egotea.

Espero dut argi geratzea, haseratik izan hehar zuena dela gaur egungo Guassa-a: dantzarako kalentura asetzeko musika kaxa.

(Erredakzioan itzulla)



JOSETXU PENAS
GUASSeko arduraduna

Joaten al zera Guass-era? Zergatrilld



ANE IRIONDO

20 urte, ikaslea

Lehen joaten nintzen baina orain ez. Ez jata neri musika klase hori gustatzen eta dabilen ambientia gehiegi ere ez.



J. KARLOS MARKOS

27 urte, ikaslea

Apenas, ez da nere gustokua. Horrela domeka goiza ere aprobetxau leike. Gehiago gustatzen jatan lehen, orain kanpotar asko dao, bero haundixa...



FERNANDO ASTIOARRAGA

22 urte, dendaria

Ostiralero, jende gutxiago dabilelako. Zapatuetan ez, agobio bat da, kokoteraino egoten da. Oraingo mobida lehen-goia baino gehiago gustatzen zait.



DANI ARENAS

18 urte, ikaslea

Lehen juten nitzan baina berrikuntzak egin ditzuenetik ez naiz egon, gainera sarrera garestixa da. Bakalaua gustatzen zait noizean behin martxarako.



IRUNE ALBERDI

25 urte, idazkaria

Zapatu batzutan, tabernak isten dutenian. Baina hainbeste jende egoten da... Bakalaua ere oso kañerua da, tabernetakoa errezaio entzun leike.



NEREA IÑIGUEZ

15 urte, ikaslea

Lehen juten ginan baina berrixu dutenetik behin bakarrik, ikusteko. Ez jataz gustatzen ibiltzen dan jendia eta musikia, dana da txunba-txunba.

 **OIE RKI IGONGAIWAK**
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
1 (943) 11 35 15 • **ABERIAK** (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

pme 99~ 2~7. Ec'ecteiaa
ARozTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA
Santa Klara, 10-1 Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 05 47 Tel: 74 04 68

LANBROA

elgoibar

Iker Iriondo:

"Gabonetan ondo jan, asko jan, baina betekadarik hartu gabe"

Kroketak barazki edo fruitu lehorrekin, berenjenak laban, arto pudina, taloa, ogia, tofu saltsa berdean, perretxikua seitanarekin saltsan, gaztanbero opilak bizkaierara... Plater hauek dira, besteak beste, bukatu berri den sukaldaritzaren bejetarianoari buruzko ikastaroan prestatu

eta dastatu dituztenak. I kastaro hau Elgoibarko Izarrak antolatu du. Bertan 32 elgoibartarrek hartu dute parte eta astean birritan amantala jarriz, Iker Iriondo plaentxiar sukaldari bejetarianoaren eskutik, hain ezezaguna den sukaldaritzara urreratzeko aukera izan dute.

- Eman duzun lehen ikastaroa izan da. Zer iruditu zaizu?

Esperientzia oso positiboa izan da. Ni gogo haundiz saiatu naiz nerezat hain interesgarria den sukaldaritzaren bejetarianoaren muina jendeari azaltzen. Jende oso jatorra etorri da. Parte hartzeko eta ikasteko gogo haundia azaIdu dute. Gainera, egin ditugun platerrik gehienak ezezagunak izan dira beraiantzat, normalean etxean egiten ez dituztenak; beraz, ikastaro aberasgarria izan dela esan dezaket.

- Zerk bultzatua etorri da jendea?

- Nik uste moda kontuagatik baino kuriositateak bultzatu duela jendea ikastaro honetara. Gainera, gaur egun mediku, zientzilari eta bestelakoek gero eta garrantzi gehiago ematen diote ondo elikatzeari. Elikadura urratsak eta oinarriak aldatu egin dira eta frogatua dago fruitu eta barazkietan aberatsa den dieta bat eramatea onuragarria dela osasunerako. Onclorior, jendea bere gorputza eta osasunaren garrantziaz kontzientziatzen ari dela esan gnm nuke eta bide horri hel-



"janari eta sukaldaritzari buruzko ikuspegi zabalago bat ematen saiatu naiz".

duz mundu bejetarianoa interesatzen hasi da.

- Zein da ikastaroaren ardatza?

- Gehienbat praktikoa izan da. Nik ikasleei errezetak pasa dizkiet idatzita eta gero, klasean, plater bakoitza egin dugu pausoz pauso. Alde batetik nere nahia sukaldea lantzen irakastea izan da eta bestetik, sukaldaritzaren bejetarianoak eskaintzen dituen aukerak eta produktu berriak aurkeztea. Hala nola, jende gehienarentzat ezezagunak

diren soja, rnijoa, jennifer, artua edota produktu biologikoak.

- Zein ezberdintasun dago sukaldaritzaren bejetarianoaren eta tradizioaren artean?

-Sukaldea berdina da; ezberdintasun orokorra zera da, sukaldaritzaren bejetarianoan ez direla arrainak eta okela erabiltzen. Sukaldaritzaren honen oinarria zerealak, barazkiak, fruta eta entsaladak dira. Hau oinarri hezala hartuz, batzuk arraultzeak ere jaten

dituzte, beste batzuk esnea eta eratorriak... Bejetarianoak izateko era ezberdinak daude.

- Bejetarianoak izatea zer da, jateko ala bizitzeko era bat?

- Elikatzeko era bat besterik ez da, nahiz eta kasu gehienetan bizitzeko era bati lotua egon, ekologiaz kezkatu eta naturarekin harreman ona edukitzen saiatzen garen.

- Bejetarianoak izateak bizitza luzatzen du ala bizitza hobetzen du?

- Bizitza luzatzen duenik ezin dut esan, hori hurrengo belaunaldiek, azterketak egin ondoren, esan beharko dute. Nere esperientziaren arabera esan dezaket epe motzera hoheto sentitzen zarela, gorputza garbiagoa daukanez osasuna ere hohe da eta honek zoriontsuagoa izatea dakar.

- Gabonak gainean ditugunez, aholkuren bat?

- Ikastaroan egin dugu euskaldunontzat Gabonetako plater tipikoa dena: In-txaur Saltsa. Halere, nik aholku bat eman nahi nuke: ondo jan, asko jan. baina gure gorputzarentzat hain kaltegarriak diren betekadak hartu gabe.

EDURNE KORTA

112 FERJK

BASERRIARI BURUZKO 9. GEHIGARRIA

FER.ISXITSXN

Azaroan idi pareta eta guzti ikusi ahal izan zen ferian



H iruak alde horretan makina bat jende bazezilen Pfaza

Txikian. Sabelak bapo bete eta puru eta guzti, feriara hurbiltzen da hilero hainbat herritar eta kanpotar. Elgoibarren izaten dugun Feria haundiaren bezperako feria izan genuen joan den larunbatean. Asteazkenean, Eibarren San Andres; Bilbon, berriz, Itsas lur feriari eman zitzaion hasera eta berandu baino fehen, gainean daukagu Gabon Zahar feria ere.

O
N
WJ

PLICITZGONISTI

re~ /4/tilwa,

"AKEI" BASERRIKOA
(SAN PEDRO)



• Noiztik daukazu okelatara-ko behiak? - 1973an jun nitzan estraineko aldiz Frantziara. Handik ekarri nitun blonda arrazako behiak, ahal nun bezala, garai hartan erdi kontrabandoz ekarri beharra zegoen eta.

• Badaukazu behi berezi bat. - Bai, bost urte ditu. 1993ko ekainian hiru txekor egin ziazten batera. Aurten, berriz, bi.

• Bostak bizi al dira? - Bai. Iaz bi idisko eta urrixa jaio ziran. Idiskuak saldu egin nitxun, urrixak, berriz, ez zaban balio amatarako. Aurtengo bikotia ere ondo dago.

• Jateko berezirik ematen al diozu, ba? - Ez, ez. Jana naturala ematen diet nik. Larrean ibiltzen dira, lastua, baba piskat ere...

• Ernalkuntza artifizialak eraginik ba al du? - Baietz esaten dute batzuk, nik neuk ez dakit, inse-



minazio artifiziala mehoratuta dago orain genetika aldetik eta.

• Noiz arte behi hori zuekin? - Ez dakit. Oso gogor dao, gaur nik esango ez banu horrenbeste txekor ekarri ditxuala batera inork ez lioke igarriko.

• Baserritar ezezik, pelukero ere bazara. - Bai, hamalau urte nitxuanetik nabil pelukero. Gaur egunian baserritxik bakarrik ezin leike bizi eta hau gusztatzen jata. Diferentia dira bixak, bata bestiaren osagarri.



Bilboko Nazio-arteko Erakustazokan, azaroaren 30etik abenduaren 4ra **ITSASLUR** azoka izango da. Bertan, le-

hen sektorearekin zerikusia duen hainbat gauza ikus daiteke. Aurtengoa zazpigarren edizioa da eta erakusketaz gain, ganadu sariketak ere egongo dira.

Sail ezberdinak izango dira ikusgai eta horien artean nekazal turismoari eta naturari buruzko erakusketa dira aurtien nabarmentzen direnak. Horrezaz gain, basogintza, nekazaritzarako makinaria, paisaiaren arkitektura, ehiza eta arrantza, elikagaiak, label ekoizkinak, loreak eta landareak ere izango dira Bilboko erakustazokan ikusgai.

Aipatu dugun bezala, aurtien ganadu sariketak izango dira. Hara hona horien berri:

Azaroaren 30ean izan zen inaugurazioa. Egun horretan pottoka arrazaren bigarren sariketa ospatu zen. Abenduaren 1ean, berriz, alde batetik Latxa muturbeltz arrazako ardien zazpigarren sariketa izan zen. Bigarrenik, Español arrazako zaldien hirugarren sariketa eta azkenik, Arabe arrazako zaldien hirugarren sariketa. Gaur, ostirala, Bizkaiko eguna da. Goiz partean Frisoi arrazako behien zazpigarren sariketa egon da. Bihar, larunbata, Nafarroako eguna ospatuko da. Goizeko 10etan Pirenaika arrazako behien zazpigarren sariketa egongo da. Igandea, abenduak 4, izango da azken eguna, Gipuzkoako eguna. Goizean goiz, 10ak aldera, Limousin arrazako behien zazpigarren sariketari emango zaio hasera eta eguerdiko 12ak aldera behi eta ardien esne produkzioaren sariketari.

Agustin Irusta
Baserritarren zinegotzia





Narciso Urzelai 57 urte, Izarre baserria (Osintxu)

Sekula ez naiz izan, ez dot astirik eduki eta; baina aurtien juteko asmua badakat. Gauza diferente asko egoten dira eta neu landariak ikustera nua.

Iñazio Arregi 58 urte, (Mendaro)

Ez naiz behin ere izan eta orain jubilatuta nauanez aurtien ferixa guztixetara juteko asmua dakat. Jendia ikusi, igual zeozer erosi, eguna pasatu... Ez da beti lanian egon bihar!



Martin Agirremalloa 57 urte, Basaibar baserria, (Markina)

Egon izan naiz, bai. Ganado ona egoten da, ni pirenaika ikustera juten naiz. Erostera ez, ze han selekzionatutakoa egoten da eta karua izaten da.

Lorenzo Mendikute 251 urte, Upai Txiki baserria, (San Lorentzo)

Juteko asmua badakat. Lehen ere bitxan edo egon izan naiz. Mendiko makinak, itxen ditxuen demostrazivak ikusi eta zeozer tokatuz gero erosi ere bai.



Julian Eizagirre 67 urte, Abendaño baserria, (Zarautz)

Nik suizak nazkan eta premixotara juten nitzan baina ganadua gaiso etortzen zan eta injekziotan gehixao gastatzen naban premixuakin jasotakua baino. Aurtien ikustera jungo naiz.

Marisol Etxanizen gurasoak Agarre baserrikoak ziren. Behin, baserri hura utzi eta Arostegira joatea erabaki zuten. Etorrera kurioa izan zen. Agarre baserriatik behera bazegoen zelai bat. Etxaniz-Iriondo familiak zituen arropak eta bestelako gauzak kutxetan sartu eta kutxa haiek soka batez lotuz, zelaiaren behera jeitsi zituzten, arrastaka. Marisolek hamar urte zituen garai hartan. Orditik Arostegi izan du bere bizilekua eta ez du asmorik baserria uzteko, "gustura bizi naiz ni hemen".



Palazio ondoan dago Arostegi baserrian, San Lorentzon

Palazioaren historia

Arostegi baserriaren ondoan eraikuntza handi bat dago, Palazio bezala ezaguna dena, Arostegi Jauregi Haundia. Aurrean plazatxo bat dauka, zuhaitzez inguratua eta bi iturri eder ere baditu, aska eta guzti. Kanpotar batzuek eraiki zuten palazioa. Gaur egun Gloria Irusta da jabea. Palazioa izan arren, bazuen ikuilu bat, baratza bai eta sargardoa egiteko tokirik ere. Baserri moduko bat zen, labrantzarik ez zeukan arren. Aspaldiko denboretan hor bizi ziren. Gero, ordea, senitartekoak Madriletik etortzen ziren urtean behin, udara partean. San Lorentzotan demaseko giroa egoten omen zen, "Don Ramon apaiza, Don Jose Maria parrokoa, alkortatarrak, Don Jose Rezola alkate zanan arreba ere etortzen zan... Mahai haundi bat ipini eta hantxe bazkaltzen zaben danak. Gero, bazkal ostian, Txanbolin txistularixa etortzen zan eta kanpuan, plazatxuan dantzaldixa egoten zan". Orain hogeitau urte inguru, "Pakistaneko enbajadorian alaba etortzen zan. Urtero, Arostegiko danori opari bana ekartzen ziguten" kontatu digu Marisolek.

Gaur egun, ordea, inor ez da bertan bizi. Zaintzaile bat dago baina etxea ez da erabiltzen, ez da inor joaten.

- **AUZOA:** San Lorentzo.
- **SORRERA:** 1884. urtea.
- **BIZILAGUNAK:** Martina Iriondo, 86 urte, Kasimira Etxaniz, 84 urte, isaak Osoro, 54 urte, Marisol Etxaniz, 50 urte, Jon Osoro, 26 urte, Aitor Osoro 23 urte eta Antxon Osoro 19 urte.
- **LUR HEDADURA:** 12 hektarea.
- **ANIMALIAK:** Behiak, 30 ardi, oiloak...
